

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015eko URRIAREN 1ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko irailaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Felix Joaquin Asensio Robles
 Aritz Sarria Saraqueta

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
- **2015eko irailaren 10ean egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 10 de septiembre de 2015.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Hirigintza arloko baimenak arautzeko ordenantzaren hasierako onespena, hala bada./ Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de licencias urbanísticas.**
- 4. Aitzol Udal Euskaltegiak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada/ Estudio de la solicitud realizada Aitzol Udal Euskaltegia.**
- 5. Kontseiluak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de la solicitud realizada por Kontseilua.**
- 6. Herri Ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza ekonomiko administratiboen plegua onestea eta lizitazioari hasiera ematea, hala bada/Aprobación del inicio de la licitación y del pliego de condiciones económico-administrativas**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

que han de regular la adjudicación del contrato de la explotación del Herri Ostatua de Larraul.

7. Udal zinegotzien bizitza aseguroen esleipena, hala bada /Adjudicación del seguro de vida de los concejales.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2015 urteko irailaren 10eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

25/2015 Alkatetza Ebazpena, irailaren 1ekoa, SS-37781 eta SS-48721 matrikula duten ibilgailuei, ofizioz baja ematea ibilgailuen gaineko zergaren erroldan, ebazten duena.

26/2015 Alkatetza Ebazpena, irailaren 18koa, J.A.T. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

27/2015 Alkatetza Ebazpena, irailaren 25ekoa, A.L. eta J.D.M. jaunek eginiko obra baimena eskaera onestea, Sorozelai 40-an bi etxebizitzetako fatxadetako oholak aldatzeko obra baimena onestea, ebazten duena.


28/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, I.M.E. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, Sorozelai 41-ezk. etxebizitzako fatxadako oholak aldatu eta fatxada margotzeko obra baimena onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

HIRIGINTZA ARLOKO BAIMENAK ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Hirigintza baimenak arautzen duen Ordenantza prestatu dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik batzarkideak Hirigintza baimenak arautzen duen Ordenantzaren testu osoa aztertu dutela, aldeko irizpena eman diotelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Hirigintza baimenak arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena ematea.

BIGARRENA.- Hirigintza baimenak arautzen duen Ordenantzaren espedientea jendaurrean jartzea, 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Adierazitako epean interesatuek Udaleko Erregistro Orokorrean iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

LAUGARREN PUNTUA

AITZOL UDAL EUSKALTEGIAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Une honetan, arratsaldeko 20.45 orduetan, Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena, non azaltzen duen, lehengo urteko sistema berbera erabiliz, 2015/2016 ikasturterako proposatzen dute, Udaletxeak ikasleen %100 matrikula ordaintzea Tolosako udalari, Aitzol Euskaltegiaren bitartez, eta Larraulgo Udalak ikasleei zuzenean kobratzea erabakitzen duen matrikula portzentaia.


Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena onartu ezker, ikasle bakoitzak kontratu bat sinatu beharko luke, bertan jartzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bestela, kurtso amaieran Udalak jarritako % 50 eko diru-laguntza bueltatu beharko dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aitzol Euskaltegiak eginiko proposamena onestea, hau da, Larraulgo Udalak, Euskara ikastaroa egiten duten herritarren matrikularen % 100 ordaintzea Tolosako Udalari.

BIGARRENA: Euskara ikastaroa egiten duten herritarrek, Larraulgo Udalari matrikularen %50a ordaintzea, eta prestatutako kontratua sinatzea, bertan agertzen diren baldintza guztiak beteaz. Kontratuaren baldintzak ondorengoak izango direlarik:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 1.-Ikastaroaren kostua Larraulgo herrian ematen dena(matrikula+materiala) 200,00 eurokoa izango da baina ikasle bakoitzak 100,00 euro ordaindu beharko du eskola hasitakoan. Larraulgo herritik kanpo egiten diren ikastaroetarako, ikasleak kostuaren % 50a ordaindu beharko dio Larraulgo Udalari.
- 2.-Ikastaroa hasi baino lehen Larraulgo erroldatuta egon beharko du ikasleak hobari hau jasotzeko.
- 3.-Ikastaroa bukatu eta gutxienez % 80eko asistentzia izan beharko du ikasleak.
- 4.-Eguneroko eskoletan, arrazoitu gabe hamar egunetan jarraian eskolaratzen ez den ikasleari baja emango zaio. Beraz, matrikula osoa ordaindu egin beharko du.
- 5.-Azaroaren 30a baino lehen nahitaezko arrazoiaren batek eraginda baja izanez gero, bigarren kuota ez ordaintzeko aukera izango du ikasleak.

BOSTGARREN PUNTUA

KONTSEILUAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eginiko eskaera, hau da, Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten dio euskararen normalizazio-prozesuan aurrerapauso sendoak ematen jarraitzeko. Horretarako 2015eko Kudeaketa-planaren laburpena igortzen dute.

Ikusirik, 2015 urterako Larraulgo Udalak onarturiko aurrekontu orokorrean ez dagoela partidarik Kontseiluak eginiko diru-laguntza finantzatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eginiko eskaera ukatu, Larraulgo Udalak onartutako 2015 urterako aurrekontu orokorrean ez dagoelako partidarik diru-laguntza hau finantzatzeko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Euskararen Gizarte erakundeen Kontseiluari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ONESTEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik datorren 2015eko abenduaren 22an, gaur egun Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena eramaten duenak zerbitzua utzi egin behar duela. Horrela adostu delarik, Y.P. andrearen eta Larraulgo Udaletxearen artean, 2015eko irailaren 10ean sinatutako dokumentuan.

Ikusirik, Larraulgo Udalak, prestatu dituela Larraulgo Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen plegua.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onospena.

HIRUGARRENA: Larraulgo herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onospena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zortzi eguneko epean, publikoan jartzea, interesatuek aztertu, eta behar bada, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez dituzten.

LAUGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onospena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesatuek hogeitun eguneko epean euren proposamenak aurkeztu dituzten.

ZAZPIGARREN PUNTUA


UDAL ZINEGOTZIEN BIZITZA ASEGURORI ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Zinegotzien bizi aseguruaren berritzeko garaia iritsi dela.

Ikusirik bi aseguru korreduriei eskatu zaiela Larraulgo zinegotzien bizi aseguruaren egiteko aurrekontuak, ondorengoak izanik:

-AXA SEGUROS

-MAPFRE EMPRESAS



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko bi aurrekontuak azterturik, ikusten da AXA Seguros Etxeak aurkezturikoa egokiena dela, kobertura zabalagoa duelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo zinegotzi eta Alkatearen bizi aseguroa AXA SEGUROS Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 2.296,49 euro direlarik, eta ondoren zehazten diren arrisku-estaldurak dituelarik:

-Heriotza: 100.000,00.-euro


-Ezintasuna: 100.000.-euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri, AXA SEGUROS eta MAPFRE Empresas Aseguru etxeari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDANKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EINBER	492,42
KOLDO JAUREGI	163,35
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.014,84
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.044,76
BERRI LANTEGIA	95,92
EBA ERKIZIA	1.122,28
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	22,65
FERRETERIA BARBE	58,91
OSTARBI	1.318,30
CORREOS	0,70
HOSFRINOR	147,62
IBERDROLA	173,08
IBERDROLA	27,59
IBERDROLA	228,34
IBERDROLA	72,26
IBERDROLA	139,28
REPSOL	8,37
REPSOL	61,44
MOVISTAR	49,70
MOVISTAR	19,56



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR 133,45

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.394,82** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2015 URTERAKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak irailaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuten, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2015urtean 30.000 eurotako ekarpena egin behar zutela. Larraulgo Udalarari 79,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2015 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 79,00 euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: 79,00 euroko gastua onestea.

HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA